

SUHILTZAILE ESPEZIALISTA

*Ezaguera osagarriak
Denbora, gehienez: 60 min.*

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredia.
- Aukeratu gehienez 2 espezialitate:
 - Gehienez 2 puntu, espezialitate bakoitzeko.
 - Erantzun orriko lehen bi zutabeak bakarrik zuzenduko dira.
 - Nahitaezkoa da aukeratutako espezialitatea identifikatzen duen goiburuko itema (1 edo 31) betetzea.

<i>ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)</i>	<i>A</i>	<i>B</i>	<i>C</i>	<i>D</i>	<i>Orria</i>
Igeltserotza	—				2-3
Galdaragintza eta industria-muntaiak		—			4-5
Zurgintza	—	—			6-7
Karrozeria			—		8-9
Elektrizitatea eta elektronika	—		—		10-11
Iturgintza		—	—		12-13
Autoaren mekanika eta elektrizitatea	—	—	—		14-15
Osasun larrialdiak eta larrialdietako psikologia				—	16-18

- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Hutsegiteak: - 0,33
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren edo espezialitatearen marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)	A	B	C	D
Igeltserotza		■	■	■

1/31 – Adieraz ezazu espezialitate hau erantzun-orrian, 1 edo 31 itemean markatuz (lehen edo bigarren zutabeari dagokion):

- A) – Marka
- B) – Zuriunea
- C) – Marka
- D) – Zuriunea

2/32 – Zertarako balio du harientzako galga-joko batek?

- A) – Hari baten metrika neurtzeko
- B) – Torlojuaren luzera neurtzeko
- C) – Hazbeteko hari kopurua egiaztatzeko
- D) – Torloju baten urtzearen kalitatea neurtzeko

3/33 – Eskuaira bat osatzen duten parteak:

- A) – Altuera eta oinarria
- B) – Orpoa eta orria
- C) – Angeluak eta luzerak
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

4/34 – Zertarako balio du aho-gramil batek?

- A) – Puntuak markatzeko
- B) – 45°ko kurbak egiteko
- C) – Bi marra paralelo egiteko
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

5/35 – 2:1 eskala, zein motatakoa da?:

- A) – Eskala naturala
- B) – Txikiagotze eskala
- C) – Indukzio eskala
- D) – Handitze eskala

6/36 – Akotazio arauen arabera...

- A) – ez da kota bat bera ere adierazi gabe utzi behar
- B) – kota bat hainbat bidera adieraz daiteke marrazkian
- C) – koten unitate guztiak desberdinak izan daitezke
- D) – kotak ez dira ordena, argitasun eta estetika irizpideak aintzat harturik banatuko

7/37 – Paletaren orriak bi hauen arteko luzera du:

- A) – 25-50 mm
- B) – 75-200 mm
- C) – 100-300 dm
- D) – 150-600 mm

8/38 – Zein erremintari esaten zaio orobat 'alkotana'?

- A) – Igeltsero-mailuari
- B) – Pikotxari
- C) – Mazoari
- D) – Igeltsero-aitzurrari

9/39 – Zer da oraska bat?

- A) – Mailu mota bat
- B) – Igeltsero-aitzur bat
- C) – Azpil bat
- D) – Zeharkako moldura bat

10/40 – Kirtenaren formaren arabera, honela sailkatzen dira esku-palak:

- A) – Gurutze formakoak, leunak eta lauak
- B) – Makulu formakoak, uztaidunak eta zuzenak
- C) – Gurutze formakoak, uztaidunak eta okerrak
- D) – Makulu formakoak, gurutze formakoak eta txirikordatuak

11/41 – Egin beharreko lanaren arabera, harriz lantzea izan daiteke...

- A) – trontzatzea edo ebakitzea
- B) – gastatzea
- C) – zorroztea
- D) – Aurreko hirurak zuzenak dira

12/42 – Zer da tungsteno-karburozko gurpil edo punta zorroztu bat?

- A) – Hotzeko zizela
- B) – Xafiak moztekoa
- C) – Heldulekua
- D) – Errodela

13/43 – Zertarako balio du hotzeko zizelak?

- A) – Zorrozteko
- B) – Erretenak egiteko
- C) – Ateen zura mozteko
- D) – Adreiluak mozteko

14/44 – Zerez dago egina txantilo bat?:

- A) – Zurez
- B) – Adreiluz
- C) – Altzairu laminatuz
- D) – Zementu-morteroz

15/45 – Zergatik garbitu behar da hormigoi-makina martxan dagoela?

- A) – Ura biraka ari diren osagai guztietara irits dadin
- B) – Eztanda-motorra delako
- C) – Inklinaziorik egokiena eskaintzen duelako, garbitzeko
- D) – Hormigoi-makina ez da garbitu behar martxan dagoela

16/46 – Ahuntz-hankari orobat esaten zaio...

- A) – Barrena
- B) – lltze-barra
- C) – Desentronkatzailea
- D) – Barreta

17/47 – Nola esaten zaie adreilu baten ertzeari?

- A) – Lodiera, luzera eta altuera
- B) – Zeharalde, luzealde eta zabalera
- C) – Luzealde, zeharalde eta lodiera
- D) – Luzealde, lodiera eta erdibitzailea

18/48 – Zeri esaten zaio mortero?

- A) – Hondarra edo karea duten bestelako gaiak, zementua edo beste aglomeratzaileen bat eta ura nahastetik ateratzen denari
- B) – Karea harri fineko elementuekin, hartxintxarrarekin eta urarekin nahastetik ateratzen denari
- C) – Harri-harkaitza aglomeratzailearekin eta urarekin nahastetik ateratzen denari
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

19/49 – Nola ematen da poliuretanoa?

- A) – Poliestireno hedatuzko apar zurrunarekin
- B) – Akabera baten bi aurpegiaren artean presioz injektatuz
- C) – Apar plastiko isolatzailearekin
- D) – Mikaren deskonposizioetik sortutako bermikulitarekin

20/50 – Sabai faltsuak jartzeko zereginetako segurtasun-baldintzen artean, hauek bete behar dira:

- A) – Erabiltzen diren eskailerek gutxienez 0,50 cm zabal izan behar dute
- B) – 6 metrotik gorako altueretan, asto finkoko aldamiok erabili behar dira, txarrantxarrik gabe
- C) – 3 eta 6 m arteko altueretan, bastidoreetan muntatutako astoak dituzten aldamiok erabili behar dira
- D) – Erabiltzen den eskailerak gutxienez 5 metroko altuera izan behar du

21/51 – Nola egiten da harlangaitz-horma?

- A) – Harlanduz
- B) – Lauzatan landutako harriarekin
- C) – Harri zati erregularrekin
- D) – Landu gabeko harri zati irregularrekin

22/52 – Zer da gurutze-aparailu bat?

- A) – Luze aldera jarritako adreiluez osatutako aparailua
- B) – Aparailu ingelesaren aldaera bat
- C) – Aparailu gotiko edo fladestar bat
- D) – Zeharkako aparailu bat

23/53 – Nola egiten da emokadura bat?

- A) – Barne nahiz kanpo azalera bertikal bat mortero-geruza batekin estaliz
- B) – Barne nahiz kanpo azalera bertikal bat poliuretano hedatuzko geruza batekin estaliz
- C) – Barne nahiz kanpo azalera horizontal bat poliuretano hedatuzko geruza batekin estaliz
- D) – Barne nahiz kanpo azalera bertikal batean poliuretano hedatuzko geruza bat injektatuz

24/54 – Paramentu bat eskaiola edo igeltsu zuri oso fina eta marmol hautsa uretan oratu eta kola kopuru jakin batekin nahasiz egindako oreaz estaltzeari honela esaten zaio:

- A) – Luzitzea
- B) – Entokatzea
- C) – Kolaz zolatzea
- D) – Iztukatzea

25/55 – Non agertzen dira igotze kapilarren hezetasunak?

- A) – Lokal baten barruan dagoen ur-lurrina da
- B) – Euri-uraren iragazpena da
- C) – Ehunetan barrena gertatzen den iragazpena da
- D) – Hormen beheko aldeetan

26/56 – Tabikoi izeneko horma-mota hauxe da:

- A) – Adreilu meheak trebeska jartzea
- B) – Errasilioia aurrealdera jartzea
- C) – Adreilu hutsak luzera jartzea
- D) – Adreilu trinkoa luze aldera jartzea

27/57 – Blokezko fabrikako hormetan egiten diren leiho-zulo edo pasabideen zabalera...

- A) – ezin da izan 175 cm-tik gorakoa
- B) – ezin da izan 175 cm-tik beherakoa
- C) – 1,75 m-tik gorakoa izan behar da
- D) – ezin da izan 200 mm-tik gorakoa

28/58 – Erorketen kontrako gerriko motak:

- A) – Lotzekoa, zintzilikatzeakoa eta erortzekoa
- B) – Gerriko dinamikoa eta estatikoa
- C) – Gorputz osoko gerrikoa eta zirgilorik gabea
- D) – UNE-ISO 9001 gerrikoa

29/59 – Zulagailua erabiltzeko gomendatzen den banako babes ekipa bakarra hau da:

- A) – Eskularruak
- B) – Kaskoa
- C) – Maskara
- D) – Hiru horietako bat ere ez

30/60 – Zertarako balio du talotzak?

- A) – Agregatuak manipulatzeko
- B) – Gai arriskutsuak nahasteko
- C) – Lur-hondoak zapaltzeko
- D) – Zementu-morterozko entokatzea lisatzeko

ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)	A	B	C	D
Galdaragintza eta industria-muntaiak	■		■	■

1 – Adieraz ezazu espezialitate hau erantzun-orrian, 1 edo 31 itemean markatuz (lehen edo bigarren zutabeari dagokion):

- A) – Marka
- B) – Zuriunea
- C) – Marka
- D) – Marka

2/32- Hexagono bat zirkunferentzia baten txertatuta dagoelarik, haren alde bat...:

- A) – diametroaren berdina da
- B) – erradioaren berdina da
- C) – diametroa zati erradioa da
- D) – Erradioaren karratua da

3/33 – Erdi-puntuko arku...

- A) – zirkunferentzia erdia da
- B) – zirkunferentzia erdia baino txikiagoa da
- C) – zirkunferentzia erdia baino handiagoa da
- D) – Aurrekoetako bat ere ez da zuzena

4/34 – Arku eskartzanoa...

- A) – zirkunferentzia erdia da
- B) – zirkunferentzia erdia baino txikiagoa da
- C) – zirkunferentzia erdia baino handiagoa da
- D) – Aurrekoetako bat ere ez da zuzena

5/35 – Zenbateko angelua du triangelu aldeakide batek, aldean artean?

- A) – 45°
- B) – 60°
- C) – 75°
- D) – 90°

6/36 – Zein ezaugarri izan behar ditu zigilatzaile batek?

- A) – Lotura indar handia
- B) – Elastikotasunik batere ez
- C) – Uzkuadura handitua
- D) – Oxidazioaren kontrako babesa

7/37 – Triangelu aldeakide batean...

- A) – perimetroa aldea bider 2 da
- B) – perimetroa aldea bider 3 da
- C) – oinarria bider altuera da
- D) – aldea zati bi da

8/38 – Angeluzuzena izateko, triangelu batek ezinbestean behar du honelako angelu bat:

- A) – 45°
- B) – 180°
- C) – 90°
- D) – 30°

9/39 – Barne presio handiko biltegien hondorako, hau erabiltzen da:

- A) – Erdi-puntuko arku
- B) – Arku eskartzanoa
- C) – Arku karpanela
- D) – Ferra-arkua

10/40 – Txapetan, zuntz neutroa, zehazki hemendik igarotzen da:

- A) – Lodieraren goiko aldetik
- B) – Lodieraren beheko aldetik
- C) – Alde zeharretik
- D) – Lodieraren erditik

11/41 – Perfil ijeztuetan zuntz neutroak honekin bat egiten du:

- A) – Perfilaren grabitate-zentroarekin
- B) – Perfilaren zentroarekin, simetrikoak badira
- C) – A eta B zuzenak dira
- D) – A eta B okerrak dira

12/42 – Azetilenoa gas erregai bat da, zeinen lehengaiak hauek diren:

- A) – Kaltzio-karburoa eta oxigenoa
- B) – Olio eta ura
- C) – Kaltzio-karburoa eta olio
- D) – Kaltzio-karburoa eta ura

13/43 – Elektrodo estalizko arkuzko soldadurari honela esaten zaio:

- A) – Oxiazetilenikoa
- B) – TWS
- C) – TIG-TAG
- D) – SMAW

14/44 – Elektrodo estaliarentzako soldadura-tentsioa, normalean, hau da:

- A) – 220 V
- B) – 80 V-etik gorakoa
- C) – 80 V-etik beherakoa
- D) – A eta B zuzenak dira

15/45 – Soldatzeko erabili behar diren babestekoaren artean ez dira sartzen:

- A) – Polainak
- B) – Larruzko eskularruak
- C) – Kotoizko jantziak
- D) – Segurtasun-oinetakoak

16/46 – Honela sailka daitezke elektrodoak, estalduraren arabera:

- A) – Errutilozkoak eta pizgarridunak
- B) – Azidoak eta oinarritzkoak
- C) – Errutilozkoak eta azetilenozkoak
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

17/47 – Irteera-potentziaren erregulazioa kontrol elektronikorako sistema baten bitartez egiten den soldadura-aparatuari honela esaten zaio:

- A) – Elektrosoldadura
- B) – Frekuentzimetroa
- C) – Hot Spam
- D) – Inverter

18/48 – Elektrodo heze batek, akatsen bat eragiten al du soldaduran?

- A) – Zuloak
- B) – Koskadurak
- C) – Poroak
- D) – Ez du akatsik eragiten

19/49 – Soldadura beroegiak akats bat eragiten du. Adierazi zein:

- A) – Pitzadurak
- B) – Poroak
- C) – Hozkadak
- D) – Zuloak

20/50 – Uztai-kurbaketaz ari garelarik, honetaz ari gara:

- A) – Gorputz irekiak
- B) – Perfil ijeztuak
- C) – Gorputz itxiak
- D) – Triangelu aldeakideak

21/51 – Sehaska-kurbaketaz ari garelarik, honetaz ari gara:

- A) – Gorputz irekiak
- B) – Perfil ijeztuak
- C) – Gorputz itxiak
- D) – Triangelu aldeakideak

22/52 – Honelako gasak dituzten botilak identifikatzen ditu kolore berde horixkak:

- A) – Toxikoak
- B) – Lehergarri oxidatzaileak
- C) – Geldoak
- D) – Sukoia

23/52 – Kono edo kono-enbor zeharretan:

- A) – Oinarriak perpendikularrak dira beti
- B) – Oinarriak alderantzizkatuak dira beti
- C) – Oinarriak zirkularrak dira beti
- D) – Oinarriak paraleloak dira beti

24/54 – Angeluzuzen batean, hipotenusaren karratua honen berdina da:

- A) – Katetoen karratuen baturaren erro karratua
- B) – Katetoen karratuen batura
- C) – Oinarria bider altuera zati bi
- D) – Alde guztien batura

25/55 – 90ºtara dauden diametro ezberdineko bi hodi lotu behar direlarik, honelakoa izango da lotuko dituen gorputza:

- A) – Enbor koniko bat
- B) – Tobera errektangeluar bat
- C) – Esfera atalkatu bat
- D) – Ukondo koniko bat

26/56 – Gasometro-kupulak esfera erdian eraikitzeko, hau erabiltzen da:

- A) – Enbor koniko bat
- B) – Tobera errektangeluar bat
- C) – Esfera atalkatu bat
- D) – Ukondo koniko bat

27/57 – Soldadura autogenoa da —ekarpen-materialik ga-bea—, honako hau:

- A) – Erresistentzia bidezko soldadura elektrikoa
- B) – Soldadura elektromagnetikoa
- C) – Soldadura elektrodinamikoa
- D) – Plasma-soldadura

28/58 – Tobera bat garatzen delarik, materiala ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta itxitura errazteko, honela egin behar da, beti:

- A) – Pieza bakarrean
- B) – Bi erditan
- C) – Zati atalkatuko aleazio batean
- D) – Adarkatze batean

29/59 – Biraketa-konoek osatutako galtzak hauxe dira:

- A) – Esferak
- B) – Adarkatzeak
- C) – Toberak
- D) – Zilindroak

30/60 – Plasma-mozketa hauxe da:

- A) – Oximozketa
- B) – Mozketa angeluarra, hozgarri ekarpenarekin
- C) – Indukzio-mozketa
- D) – Gas baten ia erabateko ionizazioa dela medio lortutako fluxua baliatuz egiten den mozketa

ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)	A	B	C	D
Zurgintza	■	■	■	

1 – Adieraz ezazu espezialitate hau erantzun-orrian, 1 edo 31 itemean markatuz (lehen edo bigarren zutabeari dagokion):

- A) – Marka
- B) – Marka
- C) – Marka
- D) – Zuriunea

2/32 – Alderik aldeko zuloa egiteko, zer erabiltzen da?

- A) – Pala barauts lauak
- B) – Koroa-barautsak edo zerra modukoak
- C) – Harlangaitzerako barautsak
- D) – Kobrezko barauts helikoidala

3/33 – Zein forma du zerrote bizkardunak?

- A) – Orri errektangeluarra
- B) – Orri zorrotza
- C) – Orri biribildua
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

4/34 – Lixak hiru multzotan sailka daitezke:

- A) – Lixa hezea, arrunta eta itzulikatua
- B) – Euskarri fineko lixa, zulagailu-lixu eta uretako lixa
- C) – Lixa arrunta, ur lixa eta esmeril-ehuna
- D) – Bi multzo bakarrik daude: esmeril-ehuna eta lixa bikoi-tza

5/35 – Zer da marrusketa bat?

- A) – Metal-falka mota bat
- B) – Zura lantzeko arrabota mota bat
- C) – Meta eta zura lantzeko baraila mota bat
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

6/36 – Zurgin-mahaiak hainbat neurri izan ditzake, baina hauek dira arruntenak:

- A) – 220 cm-ko luzera, 50 cm-ko zabalera eta 90 cm-ko altuera
- B) – 150 cm-ko luzera, 50 cm-ko zabalera eta 30 cm-ko altuera
- C) – 220 cm-ko luzera, 10 cm-ko zabalera eta 90 cm-ko altuera
- D) – 220 mm-ko luzera, 50 mm-ko zabalera eta 90 mm-ko altuera

7/37 – Zurezko azalera handiak lixatzeko, lixagailurik egokiena hau da:

- A) – Lixagailu orbitala
- B) – Banda-lixagailua
- C) – Sagu-lixagailua
- D) – Lixagailu trianguluarra

8/38 – Zerra amaigabeari orobat esaten zaio...

- A) – inguratzeko zerra
- B) – zerra zirkularra
- C) – zinta-zerra
- D) – zerrotea

9/39 – Makina konbinatu edo unibertsalak zurgintzako bost makinaren zereginak biltzen ditu. Hauetako bat ere ez da zuzena:

- A) – zerra zirkularra
- B) – arrabotatzeko makina
- C) – lodieran arrabotatzeko makina
- D) – kanteadorea

10/40 – Nola deitzen zaio zuntzaren norabide desberdinetan aldizkatzen diren geruzez osatutako zurezko materialari?

- A) – aglomeratua
- B) – geruzatua
- C) – DM taulak
- D) – kontraxapatua

11/41 – Lorategirako altzariak egiteko, komenigarria da...

- A) – iroko zura erabiltzea
- B) – okume zura erabiltzea
- C) – kontraxapatu zura erabiltzea
- D) – melamina erabiltzea

12/42 – Zertarako erabiltzen da dekapatzailea zurgintzan?

- A) – Pintura zaharrak berotan erraz disolbatzeko
- B) – Berrito pintatzea jasango ez luketen pintura zaharrak kentzeko
- C) – Altzariei distira eta gogortasuna emateko
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

13/43 – Ate bat 3x3 zentimetro zabal-lodiko bastidore batekin eraikia dagoelarik, honela esaten zaio:

- A) – Ate trinkoa
- B) – Joan-etorriko atea
- C) – Ate veneziarra
- D) – Ate hutsa

14/44 – Leiho baten edozein zatitan integratutako perfil bertikaletako bakoitza hauxe da:

- A) – Bastidore bat
- B) – Zeharraga bat
- C) – Muntaga bat
- D) – Idulki bat

15/45 – Berniza ematean...

- A) – lehen eskualdia hurrengoak baino diluituago eman behar da
- B) – inoiz ez da eman behar lehen eskualdia
- C) – lehen eskualdia hurrengoak baino gutxiago diluituta eman behar da
- D) – eskualdi guztiak berdin diluituta eman behar dira

16/46 – Mihiztadurak bi pieza edo gehiagoren loturak dira, kola edo burdindegi-materialen laguntzarik gabe egiten direnak.

- A) – Ez da zuzena; beti jarri behar da zigilatze puntu bat.
- B) – Ez da zuzena; mihiztadurak gutxienez torlojutzea edo zigilatzea eskatzen du.
- C) – Bai, zuzena da.
- D) – Milano kolaren kasuan bakarrik.

17/47 – Loturak egiteko ohol edo piezen ertzetan hortz trapezoidalak koskatzean datzan metodoari honela esaten zaio:

- A) – Hiru zuloko loturak
- B) – Milano kolako loturak
- C) – Leiho eta pertsianetarako loturak
- D) – Aho-zirikako mihiztadurak

18/48 – Arau gisa, lurretik neurtuta, altuera honetan jarri behar da ate baten sarraila:

- A) – 120 cm
- B) – 100 cm
- C) – 115 cm
- D) – 105 cm

19/49 – Esmerilagailu baten babesgarria kentzen delarik, kontuan izan behar da:

- A) – Korrante elektrikoa ez dadila egon 220 V-etara
- B) – Zura makinatik atera dela
- C) – Inoiz ez da kendu behar babesgarria
- D) – Abian jartzeko botoia D posizioa biratuta dagoela

20/50 – Zurezko torlojuei honela esaten zaie:

- A) – Biraketa-puntak
- B) – Tirafondak
- C) – Iltzeak
- D) – Zurgin-puntak

21/51 – Zokaloak honela lotzen dira:

- A) – Normalean itsasgarriarekin, eta komunzki iltzatu egin ohi dira
- B) – Beti itsasgarri oso diluituarekin, eta buru zabaleko puntekin iltzatuta
- C) – Gaur egun zokaloek pitzadura autoiltzagarri txiki batzuk izan ohi dituzte
- D) – Oholtza ez da komenigarria itsastea

22/52 – Zurezko zoruak honekin egiten dira.

- A) – Ziri-mihiztadurarekin
- B) – Pieza matxinbratuen mihiztadurarekin
- C) – Bururik gabeko puntetikiko mihiztadurarekin
- D) – Paraleloko mihiztadurarekin

23/53 – Zer da intxaur-tinta?

- A) – Intxaurrondoa zatikatzetik ateratzen diren piezak
- B) – Intxaurrondoaren artelazkitik ateratzen den argizari mota bat
- C) – Zurarentzako tindagai mota bat
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

24/54 – Material bat zurari zahar txura emateko erabiltzen dela esaten dugularik, zertaz ari gara?

- A) – Disolbatzaile espezializatuez
- B) – Azetona sintetikoaz
- C) – Pasta edo gel dekapatzaileaz
- D) – Judeako betunaz

25/55 – Zertarako jartzen dira ateak gelditzekoak?

- A) – Atearen pisuarekin bandek amore eman ez dezaten
- B) – Atea bi aldeetara ireki ahal izateko
- C) – Une jakin batzuetan atea finkatu eta zabalik gera dadin
- D) – Ateak horman jo ez dezan

26/56 – Zein da bandarik erabiliena, sukalde eta bulegoko altzarietan?

- A) – Kazola-banda
- B) – Kremlera-banda
- C) – Piano-banda
- D) – Gontz-banda

27/57 – Zein da zurik arruntena, zur bigunen artean?

- A) – Tekka
- B) – Intxaurrondoa
- C) – Palisandroa
- D) – Pinua

28/58 – Lehendik prestatutako baten paralelo den azalera lau bat prestatzeko, makina hau erabiltzen da:

- A) – Zinta bikoitzeko zerra
- B) – Fresatzeko makina paraleloa
- C) – Fresatzeko makina horizontala
- D) – Lodieran arrabotatzeko makina

29/59 – Zulagailua erabiltzeko gomendatzen den banako babes ekipoa bakarria hau da:

- A) – Eskularruak
- B) – Kaskoa
- C) – Maskara
- D) – Hiru horietako bat ere ez

30/60 – Zenbat fresa komeni dira, gutxienez, zulagailuak bere funtzio guztiak egin ditzan?

- A) – Joko estandarra bostekoa da
- B) – Helduleku-fresa batekin eta zurtoin-fresa batekin aski da
- C) – Bada hamaika motatako fresak onartzen dituen zulagailurik
- D) – Fresak fresatzeko makinarekin erabiltzea komeni da

ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)	A	B	C	D
Karrozeria			■	■

1 – Adieraz ezazu espezialitate hau erantzun-orrian, 1 edo 31 itemean markatuz (lehen edo bigarren zutabeari dagokion):

- A) – Zuriunea
- B) – Zuriunea
- C) – Marka
- D) – Marka

2/32 – Atal hauetan sailkatzen diren seinaleak, zertarako erabiltzen diren:

- A) – Salbatzea eta debekatzea
- B) – Behartzea eta adieraztea
- C) – Ohartaraztea eta informatzea
- D) – Araztea eta ohartaraztea

3/33 – Ezaugarri hauetatik zein dagokie Dual Fase (fase bikoitza) altzairuei?

- A) – Karbono eduki txikiak konbinatzen dira hainbat konbinazio mikroaleatzailerekin
- B) – 60-80 kg/mm²ko haustura-tentsioa dute ezaugarri mekanikoa
- C) – Kromo, nikel eta molibdeno aleazio txikiak dituzte
- D) – Aurrekoetako bat ere ez da zuzena

4/34 – Ezaugarri hauetatik zein dagokie IF (interstitial free) altzairuei?

- A) – Karbono eduki txikiak konbinatzen dira hainbat konbinazio mikroaleatzailerekin
- B) – 60-80 kg/mm²ko haustura-tentsioa dute ezaugarri mekanikoa
- C) – Kromo, nikel eta molibdeno aleazio txikiak dituzte
- D) – Aurrekoetako bat ere ez da zuzena

5/35 – Korrosioaren kontra babesteko produktuak honela sailka daitezke:

- A) – Azpietarako estaldurak
- B) – Produktu elektroinduzituak
- C) – Zigilatzearen kontrako produktuak
- D) – Karbono-argizariak

6/36 – Zein ezaugarri izan behar ditu zigilatzaile batek?

- A) – Lotura indar handia
- B) – Elastikotasunik batere ez
- C) – Uzkuadura handitua
- D) – Oxidazioaren kontrako babesa

7/37 – Zerezkoak dira PUR zigilatzaileak?

- A) – Poliestilenoa
- B) – Poliuretanoa
- C) – Balioaniztunak
- D) – Plikarbonatoak

8/38 – Disolbatzaileak dituzten zigilatzaileak honela gogortzen dira:

- A) – Solidotuz
- B) – Lurrunduz
- C) – Gasifikatuz
- D) – Kapilaritatez

9/39 – Substratuek tentsioak jasaten dituztelarik, itsaste loturaren planoarekiko norabide perpendikularrean, hone-lakoa izan daiteke:

- A) – Konpresioa
- B) – Uzkuadura
- C) – Tentsioa
- D) – Zigilatu ondokoa

10/40 – Soldadura heterogeneoen artean, soldadura bigunaren ezaugarria da fusio puntu hau duela:

- A) – 600 eta 900 °C artekoa
- B) – 1.000 eta 1.200 °C artekoa
- C) – 400 °C-tik beherakoa
- D) – 1.200 °C-tik gorakoa

11/41 – Soldadura heterogeneoen artean, soldadura sendoaren ezaugarria da fusio puntu hau duela:

- A) – 600 eta 900 °C artekoa
- B) – 1.000 eta 1.200 °C artekoa
- C) – 400 °C-tik beherakoa
- D) – 1.200 °C-tik gorakoa

12/42 – Azetilenoa gas erregai bat da, zeinen lehengaiak hauek diren:

- A) – Kaltzio-karburua eta oxigenoa
- B) – Olioia eta ura
- C) – Kaltzio-karburua eta olioia
- D) – Kaltzio-karburua eta ura

13/43 – Elektrodo estalizko arkuzko soldadurari honela esaten zaio:

- A) – Oxiazetilenikoa
- B) – SMAW
- C) – TIG-TAG
- D) – SRC

14/44 – Elektrodo estaliarentzako soldadura-tentsioa, normalean, hau da:

- A) – 220 V
- B) – 380 V
- C) – 80 V-etik beherakoa
- D) – A eta B zuzenak dira

15/45 – Soldatzeko erabili behar diren babestekoen artean ez dira sartzen:

- A) – Polainak
- B) – Larruzko eskularruak
- C) – Kotoizko jantziak
- D) – Segurtasun-oinetakoak

16/46 – Honela sailka daitezke elektrodoak, estalduraren arabera:

- A) – Azidoak eta oinarrizkoak
- B) – Antioxidatzaileak eta wolframezkoak
- C) – Errutilozkoak eta azetilenozkoak
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

17/47 – Irteera-potentziaren erregulazioa kontrol elektronikorako sistema baten bitartez egiten den soldadura-aparatuari honela esaten zaio:

- A) – Elektrosoldadura
- B) – Frekuentzimetroa
- C) – Hot Spam
- D) – Inverter

18/48 – Elektrodo heze batek, akatsen bat eragiten du soldaduran. Adierazi zein:

- A) – Zuloak
- B) – Poroak
- C) – Hozkadak
- D) – Pitzadurak

19/49 – Soldadura beroegiak akats bat eragiten du. Adierazi zein:

- A) – Zuloak
- B) – Poroak
- C) – Hozkadak
- D) – Pitzadurak

20/50 – Giro geldotako arkuzko soldadurari honela esaten zaio:

- A) – Oxiazetilenikoa
- B) – SMAW
- C) – MIG/MAG
- D) – TIG

21/51 – Giro geldotako arkuzko soldadurak bi motatako gasak baliatzen ditu:

- A) – Inaktiboak eta berezkoak
- B) – Aktiboak eta erdi-solidoak
- C) – Geldoak eta aktiboak
- D) – Geldoak eta dentsitate gutxiak

22/52 – Honelako gasak dituzten botilak identifikatzen ditu kolore berde horixkak:

- A) – Geldoak
- B) – Oxidatzaileak
- C) – Toxikoak
- D) – Sukoikiak

23/53 – Honelako gasak dituzten botilak identifikatzen ditu zink-hori koloreak:

- A) – Geldoak
- B) – Oxidatzaileak
- C) – Toxikoak
- D) – Sukoikiak

24/54 – Zertarako ez da erabiltzen MIG BRAZING soldadura?

- A) – Altzairuetarako
- B) – Txapa galbanizatueterako
- C) – Aluminiarako
- D) – Hiru horietako baterako ere ez

25/55 – Giro geldotako arkuzko soldadurari honela esaten zaio:

- A) – MIG
- B) – MAG
- C) – SMAW
- D) – TIG

26/56 – TIG soldaduretan babes gisa erabiltzen den gasa hauxe da:

- A) – Argona
- B) – Helioa
- C) – Aurreko horien nahastura
- D) – Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

27/57 – Erresistentzia bidezko soldadura elektrikoa hauxe da:

- A) – Soldadura autogenoa da, ekarpen-materialik gabea
- B) – Soldadura elektromagnetikoa
- C) – Soldadura elektrodinamikoa
- D) – Intentsitate gutxiak dituen soldadura

28/58 – Soldadura elektrikoak karrozerian egindako puntuak bereizteko gehien erabiltzen diren metodoak hauek dira:

- A) – Zizelkatzea, fresaketa eta zilindraketa
- B) – Zizelkatzea, kurbatzea eta zilindraketa
- C) – Zizelkatzea, kurbatzea eta zulaketa
- D) – Harriz lantzea, fresaketa eta zulaketa

29/59 – Estanpazio-lotura honelako lotura-sistema da:

- A) – Termoerretrektila
- B) – Hotza
- C) – Beroa
- D) – Hirurak zuzenak dira

30/60 – Gas baten ia erabateko ionizazioa dela medio lortutako fluxua baliatuz egiten den mozketari honela esaten zaio:

- A) – Oximozketa
- B) – Automozketa
- C) – Indukzio-mozketa
- D) – Plasma bidezko mozketaketa

ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)	A	B	C	D
Elektrizitatea eta elektronika	■		■	

1 – Adieraz ezazu espezialitate hau erantzun-orrian, 1 edo 31 itemeari markatuz (lehen edo bigarren zutabeari dagokion):

- A) – Marka
- B) – Zuriunea
- C) – Marka
- D) – Zuriunea

2/32 – Eroale bat denbora jakin batean zeharkatzen duen elektrizitate-kopuruari honela esaten zaio:

- A) – Tentsioa
- B) – Indar elektroeragilea
- C) – Korrante intentsitatea
- D) – Erresistentzia

3/33 – Eroale milimetro koadro batetik zirkulatzen duen ampere kopuruari honela esaten zaio:

- A) – Korrante intentsitatea
- B) – Korrante dentsitatea
- C) – Korrante tentsioa
- D) – Potentziala

4/34 – Hauxe dio Ohmen legeak:

- A) – Tentsioa zati erresistentzia da intentsitatea
- B) – Intentsitatea zati erresistentzia da tentsioa
- C) – Tentsioa bider intentsitatea da erresistentzia
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

5/35 – Zirkuitu elektriko batean denbora jakin batean garatzen den lanari honela deitzen zaio:

- A) – Potentzia
- B) – Joulea
- C) – Intentsitatea
- D) – Energia

6/36 – Hauxe da korrante intentsitatearen unitatea:

- A) – Volta
- B) – Watta
- C) – Ohma
- D) – Amperea

7/37 – Hauxe da erresistentziaren unitatea:

- A) – Coulomba
- B) – Amperea
- C) – Ohma
- D) – Volta

8/38 – Sekzio hauetako zein ez da erabiltzen nagusiki etxeetako instalazioetan?:

- A) – 1,5 milimetro koadro
- B) – 4 milimetro koadro
- C) – 5 milimetro koadro
- D) – 6 milimetro koadro

9/39 – Kable elektrikoaren azal isolatzailearen kolore urdina honi dagokio:

- A) – Lurra
- B) – Neutroa
- C) – Fasea
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

10/40 – Tentsio elektrikoaren neurtzeko tresnari honela deitzen zaio:

- A) – Amperemetroa
- B) – Wattmetroa
- C) – Voltmetroa
- D) – Ohmetroa

11/41 – Korrantearen intentsitatea neurtzeko tresnari honela deitzen zaio:

- A) – Amperemetroa
- B) – Wattmetroa
- C) – Voltmetroa
- D) – Ohmetroa

12/42 – Plastikozko zurruneko hodi babesleak okertzeko hau baliatu ohi da:

- A) – Torloju bat
- B) – Erregailua
- C) – Berotan dekapatzeko
- D) – Erantzun guztiak zuzenak dira

13/43 – Lanpara gorri baten potentzia ez da izan ohi honako hau:

- A) – 15 W
- B) – 25 W
- C) – 45 W
- D) – 75 W

14/44 – Nola esaten zaio hodiaren barruan korrantea sortzeko haren elektrodoen artean tentsio-piko labur bat eragiteko aukera ematen duen etengailuari:

- A) – Pitzarazgailua
- B) – Erreaktantzia
- C) – Balastoa
- D) – Kommutadorea

15/45 – Argi nahasiko lanparek...:

- A) – Erreaktantzia behar dute
- B) – Abiagailua behar dute
- C) – Ez dute erreaktantziarik behar
- D) – Pitzarazgailua behar dute

16/46 – Motor trifasiko bat triangeluan konektatuz gero:

- A) – Funtzionamendu tentsio handiagoarekin lan egiten du
- B) – Funtzionamendu tentsio txikiagoarekin lan egiten du
- C) – Funtzionamendu intentsitate handiagoarekin lan egiten du
- D) – Funtzionamendu potentzia handiagoarekin lan egiten du

17/47 – Kontaktore baten harila honelako hari esmaltatuz dago osatua:

- A) – Diametro handikoa eta espira ugarikoa
- B) – Diametro txikikoa eta espira gutxikoa
- C) – Diametro txikikoa eta espira ugarikoa
- D) – Diametro handikoa eta espira gutxikoa

18/48 – Errele termikoa automatismo-zirkuituetan erabiltzen da, honetarako:

- A) – Etxebizitzak babesteko
- B) – Pertsonak babesteko
- C) – Txirbilak erauzteko
- D) – Motorrak abiarazteko

19/49 – Teletengailua:

- A) – Bulkada-errelea da
- B) – Tresna elektrodinamikoa da
- C) – Kommutadore hirupolarra da
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

20/50 – Normalean, atezain automatikoen elikatze-iturria honelakoa izan ohi da:

- A) – 220 V
- B) – 380 V
- C) – 24 V
- D) – 12 V

21/51 – Atezain automatikoen sistemetan erabiltzen den kablearen sekzioa hau izan ohi da:

- A) – 0,25 milimetro koadro
- B) – 0,5 zentimetro koadro
- C) – 0,25 zentimetro koadro
- D) – 0,5 milimetro koadro

22/52 – Etengailu automatiko diferentzialak salto egiten du:

- A) – Instalazioak lur-konexioa duenean
- B) – Instalazioan zirkuitulaburra gertatzen denean
- C) – Instalazioan gainkarga gertatzen denean
- D) – B eta C zuzenak dira

23/53 – Etengailu automatiko magnetotermikoak salto egiten du:

- A) – Instalazioak lur-konexioa duenean
- B) – Instalazioan zirkuitulaburra gertatzen denean
- C) – Instalazioan gainkarga gertatzen denean
- D) – B eta C zuzenak dira

24/54 – Deien kudeaketa kotsola batekin edo hainbatekin egiten duen operadorea edo harreragilea duen sistemari honela esaten zaio:

- A) – ACD sistema
- B) – Lerro anitzeko sistema
- C) – Sare-interkonexioa
- D) – PBX sistema

25/55 – Lan elektriko bat egin aurretik beti gogoan hartu behar den arau nagusietako bat hau da:

- A) – Indarra dagoen egiaztatu
- B) – Eskularruak jantzi
- C) – Arrisku-eremua seinaleztatu
- D) – Arduradunei gaztigatu

26/56 – Pertsonak edo etxeko animaliek tentsiopean dauden parte aktiboak ukitzeari honela esaten zaio:

- A) – Zeharkako ukipena
- B) – Zuzeneko ukipena
- C) – Akats-ukipena
- D) – Zirkuitulabur-ukipena

27/57 – Segurtasun neurri gisa, zein kable iritsi behar da instalazioko korrante-hargune eta argi-puntu guztietara?:

- A) – Neutroa
- B) – Fasea
- C) – Babestekoa
- D) – Marroia

28/58 – Eroale-loturak inoiz ez dira egin behar...

- A) – Erregletekin
- B) – Zinta isolatzailearekin
- C) – A eta B zuzenak dira
- D) – A eta B okerrak dira

29/59 – Begietako erredurak...

- A) – Estali gabe utzi behar dira
- B) – Estali egin behar dira
- C) – Azido pikriko disoluzioekin tratatu behar dira
- D) – Aurrekoetako bat ere ez da zuzena

30/60 – Instalazioaren buletina betetzean, instalatutako etengailu diferentzialaren ezaugarrietan, hau idatzi behar da:

- A) – Tentsio izendatua eta sentsibilitatea, voltetan
- B) – Tentsio izendatua eta sentsibilitatea, amperetan
- C) – Intentsitate izendatua eta sentsibilitatea, amperetan
- D) – Intentsitate izendatua eta sentsibilitatea, voltetan

ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)	A	B	C	D
Iturgintza		■		■

1 – Adieraz ezazu espezialitate hau erantzun-orrian, 1 edo 31 itemean markatuz (lehen edo bigarren zutabeari dagokion):

- A) – Zuriunea
- B) – Marka
- C) – Zuriunea
- D) – Marka

2/32- Hezetasun handiko tokietan ematen den zigilatzaile bat hau da:

- A) – Krokina
- B) – Silikona
- C) – Termolatexa
- D) – Eskalina

3/33 – Soldatze-materiala urtzeko hau erabiltzen da:

- A) – Terraila beroa
- B) – Grip soldagailua
- C) – Soldatzeko lanpara
- D) – Stillson lanpara

4/34 – Terrailak bi motatakoak izan daitezke:

- A) – Afinatua eta hariztatua
- B) – Mugikorra eta zabalgarria
- C) – Egokigarria eta zabalgarria
- D) – Finkoa eta egokigarria edo zabalgarria

5/35 – Giltza motak. Adierazi existitzen ez dena:

- A) – Iturrietarako giltza finkoa
- B) – Stillson giltza
- C) – Grip giltza
- D) – Giltza txaranbeldua

6/36 – Hodiak mozteko teleskopikoek honelako hodiak moztu ditzakete:

- A) – Normalean, 32 mm arte
- B) – Normalean, 32 cm arte
- C) – Normalean, 64 mm arte
- D) – Hodi-mozteko teleskopikoa edozein mozte neurriraino iristen da

7/37 – Hodiak kurbatzekoarekin ezin dira egin honelako angeluak:

- A) – 45°
- B) – 90°
- C) – 370°
- D) – 180°

8/38 – Zein bi torloju mota daude, hodie eusteko?

- A) – Baraila-torloju eta mandril-torloju
- B) – Baraila-torloju eta kate-torloju
- C) – Kate-torloju eta ahokatua
- D) – Kate-torloju eta hariztatua

9/39 – Kobrezko hodiarekin instalazio ona egiteko, zer ez da kontuan izan behar?

- A) – Hodiak neurriak aurreikusitako gehienezko kontsumo emariei egokitzen zaizkien
- B) – Neurriak egokiak diren, dilatazioan aintzat harturik
- C) – Loturak guztiz iragazgaitzak diren
- D) – Ez dezala galarazi alikatatutako elementuaren dilatazioa

10/40 – Jariakorrak eroateko baliatzen diren altzairu eta burdinazko hodiak bi motatakoak dira:

- A) – Urtua eta laminatua
- B) – Nikeleztatua eta galbanizatua
- C) – Beltza eta galbanizatua
- D) – Galbanizatua eta laminatua

11/41 – Ixteko eskuaira-giltzaz ari garelarik, honetaz ari gara:

- A) – Komun-ontzien ur-sarreran jarri ohi den giltzaz
- B) – Kontagailuaren sarreran izan ohi den giltzaz
- C) – Horma-instalazioetan jarri ohi den giltzaz
- D) – Hodi baten bira ahalbidetzen duen giltza bakarra da

12/42 - Usain txarrak iragazi eta galarazi nahi direnean, hauxe erabiltzen da:

- A) – B formako botila bat
- B) – Sifoi bat
- C) – P formako tanga bat
- D) – Kartutxo zeramiko bat

13/43 – Komunean erabiltzeko instalatzen den deskarga-balbula, itxitura automatikoko iturria, honela deitzen da:

- A) – Kartutxo zeramikoa
- B) – Nahasteko iturria
- C) – Sifoi
- D) – Fluxumetroa

14/44 – Soldadura biguna hauxe da:

- A) – Urtzeko tenperatura handia behar duen material aglutinatzailea baliatzen deneko soldadura
- B) – 700°tik gora urtzen den aglutinatzailea baliatzen deneko soldadura
- C) – Urtzeko tenperatura txikia behar duen material aglutinatzailea baliatzen deneko soldadura
- D) – Erabat lehor dauden hodietan egiten den soldadura

15/45 – Kapilaritate-soldaduratzat hauxe jotzen da:

- A) – Urtzeko tenperatura handia behar duen material aglutinatzailea baliatzen deneko soldadura
- B) – 700°tik gora urtzen den aglutinatzailea baliatzen deneko soldadura
- C) – Urtzeko tenperatura txikia behar duen material aglutinatzailea baliatzen deneko soldadura
- D) – Erabat lehor dauden hodietan egiten den soldadura

16/46 – Gas galdarak behar bezala manipulatzeko, zer egin behar da lehenik?

- A) – Gas-horniduren barrualdeak manipulatu
- B) – Ke eta gas hustubideak behar bezala instalatuta dauden egiaztatu
- C) – Jarraibideak arretaz irakurri
- D) – Gas erregulagailua itxi

17/47 – Barruan aireari ateratzen uzten dion flotagailu bat duen purgagailua zer da?

- A) – Eskuzko purgagailua
- B) – Purgagailu automatikoa
- B) – Purgagailu kalifikatua
- D) – Sted purgagailua

18/48 – Uraren guztizko gogortasuna bi hauen batura da:

- A) – Ur bigunaren gogortasuna gehi ur gogorraren gogortasuna
- B) – Aldi bateko gogortasuna gehi sei hileko gogortasuna
- C) – Gogortasun iraunkorra gehi ur bigunaren gogortasuna
- D) – Aldi bateko gogortasuna gehi gogortasun iraunkorra

19/49 – Ur biguna, gogortasunaren arabera, izan daiteke:

- A) – 60 mg/l-tik 120ra artekoa
- B) – 0 mg/l-tik 17ra artekoa
- C) – -15 mg/l-tik -1era artekoa
- D) – 180 mg/l-tik gorakoa

20/50 – Urak hodi baten barrutik zirkulatu ahal izateko behar duen bultzada-indarrari honela esaten zaio:

- A) – Emaria
- B) – Kontsumoa
- C) – Aldiberekotasuna
- D) – Presioa

21/51 – Hodi batean barrena denbora jakin batez zirkulatu duen ur kopuruari honela esaten zaio:

- A) – Emaria
- B) – Kontsumoa
- C) – Aldiberekotasuna
- D) – Presioa

22/52 – Hauetako zein ez da ponpatze tresna bat?

- A) – Uzkuadura-ponpa
- B) – Zirkulazio-ponpa
- C) – Gaingoratze taldea
- D) – Aurrekoetako bat ere ez da zuzena

23/53 – Ur instalazioen hartuneaz ari garelarik, honetaz ari gara:

- A) – Etxebizitzen barruko instalazio partikularraz
- B) – Barruko instalazio orokorraz
- C) – Sare publikoarekin lotzen duen hodia
- D) – Banaketa sareaz

24/54 – Zeri esaten zaio deribazio, barruko instalazio orokorrean?

- A) – Kontagailu orokorretik zutabeen oineraino doan hodia da
- B) – Zutabeetatik abiatzen den eta abonatu bakoitzari ura hornitzen dion hodia da
- C) – Ura tresna sanitario bakoitzera ino eramaten duen hodia da
- D) – Kontagailutik abiatu eta ura erabiltzaile bakoitzaren altueraraino eramaten duen hodia da

25/55 – Zeri esaten zaio adar, barruko instalazio orokorrean?

- A) – Kontagailu orokorretik zutabeen oineraino doan hodia da
- B) – Zutabeetatik abiatzen den eta abonatu bakoitzari ura hornitzen dion hodia da
- C) – Ura tresna sanitario bakoitzera ino eramaten duen hodia da
- D) – Kontagailutik abiatu eta ura erabiltzaile bakoitzaren altueraraino eramaten duen hodia da

26/56 – Hodien osagaiei gagozkiolarik, gai bateragarritzat jotzen dira:

- A) – Altzairu galbanizatua eta ur gogorak
- B) – Beruna eta ur bigunak
- C) – Kobrea eta ur amoniakalak
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

27/57 – Zer da zilarrezko soldadura?

- A) – Kostuak arintzeko soldadura
- B) – Presio handiak jasan behar dituzten lotuneetarako soldadura
- C) – Presio txikiak jasan behar dituzten lotuneetarako soldadura
- D) – Pieza deformatuak lotzeko soldadura

28/58 – Sarearen funtzionamendua erregulatzeko hainbat eratako balbulak instalatzen dira. Hauetako zein ez da zuzena?

- A) – Tximeleta balbula
- B) – Asentu edo lauza balbula
- C) – Uzkuadura edo malguki balbula
- D) – Bola edo esfera balbula

29/59 – Eraikinen kanpoko aldean suteak itzaltzeko hidrante edo tesnak mota honetakoak dira:

- A) – Zutabe lehorrekoak
- B) – Zutabe hezekoak
- C) – Kola eta disolbatzailezkoak
- D) – Aparrezkoak

30/60 – PVC hodiak egokiak dira honetarako:

- A) – Ur zikina
- B) – Ur beroa
- C) – Ur hotza
- D) – Hiru erantzunak zuzenak dira

ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)	A	B	C	D
Autoaren mekanika eta elektrizitatea				■

1 – Adieraz ezazu espezialitate hau erantzun-orrian, 1 edo 31 itemean markatuz (lehen edo bigarren zutabeari dagokion):

- A) – Zuriunea
- B) – Zuriunea
- C) – Zuriunea
- D) – Marka

2/32 – Giltza hauetatik, zein ez da neurri jakinekoa?

- A) – Kazola-giltza
- B) – Pipa-giltza
- C) – Carrington giltza
- D) – Gurutze-giltza

3/33 – Giltza finkoen artean, zein ez da ohiko neurria:

- A) – 10-11
- B) – 24-26
- C) – 30-35
- D) – 27-29

4/34 – Nolako erreminta da egozkailua?

- A) – Perkusiokoa
- B) – Eustekoa
- C) – Lotzekoa
- D) – Giltza doigarria

5/35 – Zilindroen antolamendua, motor batean, honelakoa izan daiteke:

- A) – W forman
- B) – B forman
- C) – B estuaren forman
- D) – Paraleloan

6/36 – Pistoi baten bi zati nagusiei honela deitzen zaie:

- A) – Burua eta gorputza
- B) – Segmentuak eta gona
- C) – Oinarria eta burua
- D) – Burua eta gona

7/37 – Pistoiak goiko eta beheko itopuntuen artean egiten duen distantziari honela esaten zaio:

- A) – Gona
- B) – Ibiltartea
- C) – Burua
- D) – Portasegmentatua

8/38 – Pistoiak eta birabarkia lotzen dituen mekanismoari honela esaten zaio:

- A) – Ardatz eragilea
- B) – Irteera-balbula
- C) – Biela
- D) – Segmentua

9/39 – Inertzia-bolantearen zeregina hauxe da:

- A) – Motorraren blokeoa erregularizatzea, inertziaren bidez
- B) – Transmisio-elementuei mugimendua ematea
- C) – Kremlera bat hustea, inguru guztian
- D) – Motor-bloke osoa koipeztatzeke

10/40 – Sarrera eta irteera kolektoreak hemen daude kokatuta:

- A) – Birabarkian
- B) – Biela eta pistoiaren artean
- C) – Karterrean
- D) – Kulatan

11/41 – Non daude kokatuta ixte-eraztunak?

- A) – Sarrera eta irteera balbulen ondoan
- B) – Bielaren eta espeka-ardatzaren artean
- C) – Birabarkiarene muturretan
- D) – Inertzia-bolantean

12/42 – Zein abantaila eskaintzen du OHC banaketak, motor gehienetan?

- A) – Elementu mugikorren kopurua murrizten du
- B) – Mantentze lan handiagoa
- C) – Marruskadura handiagoa
- D) – Ez dago OHC banaketarik

13/43 – Zer da banaketaren agindu-sistema?

- A) – Biela-sistema mugiarazteaz arduratzen den mekanismoa
- B) – Alboko engranajea mugiarazteaz arduratzen den mekanismoa
- C) – Espeka-ardatza mugiarazteaz arduratzen den mekanismoa
- D) – V pinoiak mugiarazteaz arduratzen den mekanismoa

14/44 – Sarrera eta irteera balbulek bi zati dituzte:

- A) – Burua eta gida
- B) – Gida eta buztana
- C) – Zurtoina eta gida
- D) – Burua eta zurtoina

15/45 – Zein elementutan barrena higitzen dira balbulak?

- A) – Zurtoinean barrena
- B) – Gidetan barrena
- C) – Balantzan barrena
- D) – Buztanean barrena

16/46 – Nondik dator balantzin batek balbula irekitzeko mugimendua?

- A) – Pistoitik
- B) – Bielatik
- C) – Espeka-ardatzetik
- D) – Bultzada-hagaxketatik

17/47 – Adieraz ezazu existitzen ez den take mota:

- A) – Finkoa
- B) – Induzitua
- C) – Altuera-doikuntza duena
- D) – Hidraulikoa

18/48 – Zer erabiltzen da balantzina espeka-ardatzetik urruti dagoenean?

- A) – Takea
- B) – Malgukia
- C) – Bultzada-hagaxka
- D) – Gida

19/49 – Motor-blokea beheko aldetik babesteko hau erabiltzen da:

- A) – Espeka-ardatza
- B) – Irekitzeko malgukiak
- C) – Karterra
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

20/50 – Eztanda-motor batean, pistoia 'sarrera' aldiari dagoelarik:

- A) – Pistoia goiko itopuntuan dago
- B) – Pistoia beheko itopuntuan dago
- C) – Pistoia PMLan dago
- D) – Pistoia ibilbide erdian dago

21/51 – Eztanda-motor batean, pistoia 'konpresio' aldiari dagoelarik:

- A) – Pistoia goiko itopuntuan dago
- B) – Pistoia beheko itopuntuan dago
- C) – Pistoia PMLan dago
- D) – Pistoia ibilbide erdian dago

22/52 – Eztanda-motor batean, pistoia 'ihes' aldiari dagoelarik:

- A) – Pistoia goiko itopuntuan dago
- B) – Pistoia beheko itopuntuan dago
- C) – Pistoia PMLan dago
- D) – Pistoia ibilbide erdian dago

23/52 – Eztanda-motor batean, pistoia 'eztanda' aldiari dagoelarik:

- A) – Pistoia goiko itopuntuan dago
- B) – Pistoia beheko itopuntuan dago
- C) – Pistoia PMLan dago

D) – Pistoia ibilbide erdian dago

24/54 – Ibilgailu baten baterian tentsio izendatua hau da:

- A) – Ontzi baten tentsio izendatua bider bateriak duen ontzi kopurua
- B) – Bateria batek, 25°ko tenperaturan, 20 orduz horni dezakeen deskarga-intentsitatea
- C) – Bateria batek 210 segundoz horni dezakeen deskarga-intentsitatea
- D) – Bateria batek 21 minutuz horni dezakeen deskarga-intentsitatea

25/55 – Ibilgailu baten baterian ahalmen izendatua hau da:

- A) – Ontzi baten tentsio izendatua bider bateriak duen ontzi kopurua
- B) – Bateria batek, 25°ko tenperaturan, 20 orduz horni dezakeen deskarga-intentsitatea
- C) – Bateria batek 210 segundoz horni dezakeen deskarga-intentsitatea
- D) – Bateria batek 21 minutuz horni dezakeen deskarga-intentsitatea

26/56 – Lanpara baten ezaugarri elektrikoak hauek dira:

- A) – Funtzionamendu intentsitatea
- B) – Potentzia dielektrikoa
- C) – A eta B zuzenak dira
- D) – A eta B ez dira zuzenak

27/57 – Zein elementu dago kokatuta erregai-ponparen eta injekzio-arrapalaren artean?

- A) – Aire-iragazkia
- B) – Olio-iragazkia
- C) – Gasolina-iragazkia
- D) – Fusibleen kaxa

28/58 – Motorrak funtzionatzen duen bitartean laka eta ikatz-arrastoak sor daitezela galarazteko eta halakoak murrizteko olioak duen ahalmenari honela esaten zaio:

- A) – Garbitzeko gaitasuna eta garbitasuna
- B) – Dispertsioa eta konpresioa
- C) – Dispertsioa eta garbitzeko gaitasuna
- D) – Aurreko horietako bat ere ez

29/59 – Ezaugarri hauetatik zein ez dagokio olioari?

- A) – Gantzutasuna
- B) – Inflexio-puntua
- C) – Izozte puntua
- D) – Gartze puntua

30/60 – Erabateko presioko koipeztatze zirkuitu batean, multzo honetara hedatzen da presio-zirkuituaren ekintza:

- A) – Pistoia - buloia - zilindroa
- B) – Pistoia - buloia - biela
- C) – Pistoia - balbula - biela
- D) – Segmentua - balbula - biela

ESPEZIALITATEA (1 edo 31 itema)	A	B	C	D
Osasun larrialdiak eta larrialdietako psikologia	■	■		

1/31 – Adieraz ezazu espezialitate hau erantzun-orrian, 1 edo 31 itemean markatuz (lehen edo bigarren zutabeari dagokion):

- A) – Marka
- B) – Marka
- C) – Zuriunea
- D) – Zuriunea

2/32 – Oinarrizko bizi euskarria. Aireztapen euskarria. Oxigeno ekarpena, haurrei eta bularreko haurrei. Minutuko gomendatzen diren aireztapenak:

- A) – 10
- B) – 20
- C) – segundoko edo segundo eta erdiko behin
- D) – segundoko behin

3/33 – Oinarrizko bizi euskarria. Paziente bat erdi eserita badago, burua eta besaburuak pixka bat goratuta, 30º inguruko angeluan, honela dago:

- A) – Ahoz beherako etzaneran
- B) – Ahoz gorako etzaneran
- C) – Alboko etzaneran
- D) – Semifowler jarreran

4/34 – Oinarrizko bizi euskarria. Haur edo bularreko haur baten bihotz eta arnas gelditzea gertatzen denean esku hartzeko algoritmoan, lehentasuna du:

- A) – BBBri ekiteak
- B) – Pultsu bronkiala hartzeak
- C) – Aireztapena baloratzeak
- D) – Gertalekuaren segurtasuna bermatzeak

5/35 – Politraumatismoak. Politraumatismo baten ondoren, hiru erpinetan gertatzen dira heriotzak. Adieraz ezazu okerra:

- A) – Lehen minutuetan, inpaktuaren ondoren, bizitzarekin bateragarri ez diren ondorioengatik
- B) – Lehen orduan, urrezko orduan, hipobulemia, hemotorax eta bare-hausturengatik
- C) – Lehen orduetan, norbanakoaren organo desberdinen porrota eragiten duten infekzioengatik
- D) – Zenbait asteren buruan, sepsi orokorren ondorioz

6/36 – Ibilgailu istripua. Iraulketa. Adieraz ezazu baieztapen zuzena:

- A) – Pertsona bat ibilgailutik jaurtikia ateratzen bada, bizirik irauteko aukerak nabarmen hazten dira
- B) – Toraxa eta zangak dira parterik sentikorrenak horrelako inpaktuetan, segurtasun-uhala jarrita eraman ezean
- C) – Burua eta bizkarrezurra dira parterik sentikorrenak horrelako inpaktuetan, segurtasun-uhala jarrita eramanez gero
- D) – Ibilgailuan doazenek izan ditzaketan kalteak era askotakoak izan daitezke

7/37 – Ibilgailu istripua. Triahea. Lehentasunezko kolektiboa, osasun-langileen sorospen-lanetan:

- A) – Beltza.
- B) – Gorria.
- C) – Horia.
- D) – Berdea.

8/38 – Glasgow eskala...

- A) – politraumatismoa izan duen pertsonaren egoeraren balorazio orokorra egiteko erabiltzen da
- B) – ebaluazio neurologikoa egiteko da
- C) – konorte egoera neurtzeko erabiltzen da
- D) – begien erantzuna neurtzen du: begi-ninien tamaina, berdintasuna eta argitasunaren aurrean nola jokatuzen duten

9/39 – Trauma torazikoetan...

- A) – sailkatzerakoan, hasieran, barrunbe torazikoan zauririk dagoen ala ez kontuan hartzen da
- B) – lesio sarkorra dagoela jotzen da trauma barrunbe torazioan sartzen eta bertatik ateratzen denean
- C) – errai-pleuraren eta saihets-pleuraren artean airea pilatzen denean esaten da 'hemotorax irekia'
- D) – hemotoraxaren tratamendua baselinan bustitako gaza bat erabiliz egiten da, balbularena egingo baitu horrek

10/40 – Bizkarrezurreko kalteen seinale eta sintomak. Adieraz ezazu okerra:

- A) – odoljarria
- B) – mina
- C) – alterazio motorrak
- D) – sentikortasunaren alterazioa

11/41 – Traumatismoaren ondoren bizkortzea. Adierazi ezazu hauetako zein den lehena:

- A) – Aireztapen egokia bermatzea
- B) – Zirkulazio egokia bermatzea
- C) – Hasierako ebaluazio neurologikoa egitea
- D) – Bizkarrezurraren egonkortasuna bermatzea

12/42 – Zer definitzen da "ehun biguneko lesio" gisa?

- A) – zaintiratu
- B) – zauria
- C) – makatua
- D) – lokadura

13/43 – Lehen sorospena, paziente anputatuari. Adierazi ezazu hauetako zein den lehena:

- A) – eragindako gorputz-adarra goratzea
- B) – manta batekin berotzea
- C) – hesgailu bat egitea anputatuziogunean
- D) – anputatutako gorputz-atala immobilizatzea, mina kontrolatzeko

14/44 – Lehen sorospena, paziente anputatuari. Ibilgailuaren zapalketa. Askazeko orduan...

- A) – zapalketaren ondoren jasaten den 'erreperkusi'oaren eraginak aintzat hartu behar dira
- B) – mioglobinuria arriskua aintzat hartu behar da, kaltzioaren eta potasioaren funtzionamendu normala aldatzen baitu
- C) – aintzat hartu behar da lesiotik beherako eremuko odol-hodiak oso uzurtuta ageriko direla
- D) – hay que considerar el rápido desarrollo de un edema.

15/45 – Lehen sorospena, paziente anputatuari. Heskailua. Heskailu errepikaria...

- A) – beti erabiltzen da, hesgailu baten hasieran eta bukaeran
- B) – lehenengo bira ematen da, eta bigarrenak lehenaren bi heren estaltzen ditu; distaletik proximalera egiten da
- C) – zona distaletan erabiltzen da, hala nola buruan eta hatzetan
- D) – artikulazioetan erabiltzen da

16/46 – Lehen sorospena, paziente anputatuari. Gorputzean barrena zirkulatzen duen odolaren bolumenaren murrizketari honela deitzen zaio:

- A) – hipobolemia
- B) – odoljarria
- C) – *hallux valgus*
- D) – fasziotomia

17/47 – Zauriak. Nekez orbaintzen diren irregulartasunei honela deitzen zaie:

- A) – zaurtura
- B) – urradura
- C) – ebaki-makatua
- D) – abultsioa

18/48 – Zauriak. Desinfekzioa. Adierazi aukera zuzena:

- A) – klorexidina bakterizida eta fungizida da
- B) – iodoak indartu egiten du klorexidina
- C) – alkohol etilikoa gomendatzen da zaurietarako, bizkor murrizten baitu mikroorganismoen presentzia
- D) – ur oxigenatua antioxidante ahaltzua da; OH eta erradikal askeak sortzen ditu

19/49 – Bihotz eta arnas larrialdiak. Ehun-hipoperfusioagatik shocka. Adieraz ezazu espero izatekoa den erantzun organikoa:

- A) – bihotz-maiztasuna handitzea
- B) – bihotz-muskuluaren uzkurgarritasuna murriztea
- C) – hodi zabaltzea
- D) – hormona diuretikoak jariatzea

20/50 – Bihotz eta arnas larrialdiak. Hipertentsio larrialdiko esku-hartzea. Adieraz ezazu erantzun zuzena:

- A) – oxigenoa eman
- B) – zainerako bidea hartu eta sueroterapiarekin tratamendua hasi
- C) – larrialdi zerbitzu baliagarri batera eraman berehalakoan
- D) – elektrokardiograma egin, gaixoa atsedean hartzen utzi eta 10-30 minuturen buruan tentsio arteriala hartu

21/51 – Larrialdietako neurologikoak. Bi zangoetako muskuluetako indarra partez galtzeari honela esaten zaio:

- A) – hemiparesia.
- B) – paraparesia.
- C) – tetraplejia.
- D) – monoplejia.

22/52 – Erredurak. Ezaugarri hau du 3. graduko erredurak:

- A) – ez du minik ematen
- B) – babek exudatu ugari drainatzen dute
- C) – berez senda daiteke
- D) – ez dakar ile-folikulua galtzea

23/53 – Larrialdietako esku-hartzea. 2. aktibazio maila, larrialdia, honelako egoera bati dagokio:

- A) – hildako ugari dago
- B) – gizarte-eragina munta handikoa da
- C) – langile eta baliabide guztiak baliatuko dira
- D) – kalte materialek pertsona ugari iragiten diete

24/54 – Larrialdietako esku-hartzea. Komunikazioa. Osasun-langileek, artatutako pertsonaren egoera emozionala normaltze aldera, hau egin behar dute (okerra adierazi):

- A) – beren izena eta kargua adierazi
- B) – artatuak galdatzen duen informazioa eman
- C) – informaziorik ez eman egiten ari diren galde egiten ez dien bitartean
- D) – isilunean ekidin

25/55 – Larrialdietako esku-hartzea. Komunikazioa. Osasun-langileek, artatutako pertsonaren egoera emozionala normaltze aldera —entzuteari dagokionez— (okerra adierazi):

- A) – biktimarekin eztabaidatzea ekidin behar dute
- B) – zentzarazi egin behar dute biktima, kontseiluak eta azalpenak emanez
- C) – negarrari ekitea ekidin behar dute
- D) – erruduntasuna erakusten badu bai-bai egitea ekidin

26/56 – Larrialdietako esku-hartzea. Komunikazioa. Osasun-langileek, erreazio fasean, gogoan izan behar dute (okerra adierazi):

- A) – arras txikiagotu behar dituzte gertakariak
- B) – "inor ez daiteke zure lekuan jarri" eta gisa horretakoak erabili behar dituzte
- C) – uste baino sendagoak dira pertsonak; beraz, ekidin egin behar dituzte jarrera paternalistak
- D) – pertsonak edo ekintzak epaitzea ekidin behar dute

27/57 – Larrialdietako esku-hartzea. Komunikazioa. Osasun-langileek, heriotza bat komunikatzeko orduan, honetan saiatu behar du (erantzun okerra adierazi):

- A) – lehenik eta behin, bere burua aurkezten
- B) – intimitatea eta erasotasuna eskaintzen, hori komunikatzeko orduan
- C) – azaltzen zer erreakzio den normal eta zein ez, halakorik gertatzen delarik
- D) – zerbait behar duten galdetu

28/58 – Larrialdietako esku-hartzea. Komunikazioa. Adingabe bati familiarik norbaiten heriotza komunikatzeari gagozkiolarik... (erantzun okerra adierazi):

- A) – norberaren emozioak kontrolatzen ahalegindu behar da, erne baitago, gure erreakzio nolakoa izango den
- B) – ahalik eta lasterren eman behar zaio berria, atzeratzen ibili gabe
- C) – ez da erlazionatu behar heriotza loarekin, lotan egotearekin
- D) – nola azaldu jakin ezean, "ez dakit" esan behar zaio

29/59 – Larrialdietako esku-hartzea. Komunikazioa. Familiako norbait hil ondoren, era askotako erreakzioak izan ditzake adingabe batek. Horietako batzuek profesionalen laguntzaren premia adieraz dezakete. Adierazi hauetako zeinek:

- A) – Bizirik geratu den gurasoengandiko urruntze emozionala.
- B) – Hildakoaren heriotza ukatzea.
- C) – Lo-arazoak.
- D) – Hildakoaren portaerak imitatzea.

30/60 – Larrialdietako esku-hartzea. Laguntza psikologikoa teknikariei. Esku-hartzeetako bizipen emozionaleri gagozkiolarik... (erantzun OKERRA adierazi):

- A) – Garrantzitsua da enpatia garatzea, bestearekin identifikatu eta haren lekuan jartzearaino.
- B) – Ahalik eta ulertze mailarik handiena erdiesten saiatu beharra dago.
- C) – Umore beltza tentsioari aurre egiteko modu osasungarritzat jo daiteke.
- D) – Emozio handiko esku-hartze baten ondoren, litekeena da aspertuta sentitzea.